# ACUERDO DEL CONSEJO DE GOBIERNO POR EL QUE SE APRUEBA EL REGLAMENTO PARA LA ELECCIÓN DE DELEGADOS Y SUBDELEGADOS EN LAS ENSEÑANZAS DE GRADO, MÁSTER Y DOCTORADO DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra, aprobados mediante Decreto Foral 110/2003, de 12 de mayo (BON Nº 63, de19 de mayo de 2003), y modificados mediante Acuerdo del Gobierno de Navarra, de 21 de marzo de 2011 (BON Nº 70, de 11 de abril de 2011), establecen en el apartado 1 de su artículo 103 que cada uno de los Grupos de la Universidad Pública de Navarra dispondrá de un Delegado y, como máximo, dos Subdelegados, y en el apartado 2 de este artículo que la forma de elección de los Delegados y Subdelegados vendrá determinada en el reglamento que apruebe el Consejo de Gobierno oído el Consejo de Estudiantes.

Por otra parte, los Estatutos, en su Disposición Transitoria Octava establecen la ultra actividad de las normas, señalando al efecto que hasta la aprobación de los Reglamentos y normas de desarrollo de los presentes Estatutos, serán de aplicación los aprobados en el marco de la LRU, en lo que no contradigan a la Ley Orgánica de Universidades y a los presentes Estatutos, salvo regulación en contra del Consejo de Gobierno.

La Universidad Pública de Navarra, tal y como contempla en sus Estatutos, imparte los nuevos niveles y estructuras de enseñanzas de Grado, Máster y Doctorado establecidos en la LOU.

En virtud de la Disposición Transitoria Octava y del artículo 103.2 de los Estatutos, se han venido aplicando para la elección de los Delegados y Subdelegados de los nuevos niveles de enseñanzas distintas Normas. En concreto para determinadas titulaciones de Grado se ha aplicado el Reglamento de elección aprobado por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 16 de noviembre de 2011, para el resto de las titulaciones de Grado y todas las titulaciones de Máster ha aplicado el Reglamento de la Junta de Gobierno de 3 de octubre del 2000, regulador de las elecciones de Delegados y Subdelegados de Primer y Segundo Ciclo, adaptando su aplicación a estos nuevos niveles de enseñanzas.

Por último, para la elección de Delegados y Subdelegados de Doctorado, se ha aplicado, adaptando también su aplicación a este nuevo nivel, el procedimiento de elección establecido para los representantes de estudiantes de Tercer Ciclo, aprobado por Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 2 de diciembre de 2004.

# GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIA, NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN GRADU, MASTER ETA DOKTORETZA IKASKETETAN ORDEZKARIAK ETA ORDEZKARIORDEAK HAUTATZEKO ARAUTEGIA ONESTEN DUENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuek, 2003ko maiatzaren 12ko Foru Dekretuaren bidez onetsitakoek (NAO, 63 zk., 2003ko maiatzaren 19koa), eta Nafarroako Gobernuaren 2011ko martxoaren 21eko Erabakiaren bidez aldatutakoek (NAO, 70 zk., 2011ko apirilaren 11koa), beren 103. artikuluaren 1. idatz-zatian xedatzen dute Nafarroako Unibertsitate Publikoko talde bakoitzak ordezkari bat izango duela, eta bi ordezkariorde, gehienez ere, eta artikulu horren 2. idatz-zatian xedatzen dute Gobernu Kontseiluak Ikasleen Kontseiluari entzun ondoren onesten duen arautegiak zehaztuko duela ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko modua.

Bestalde, Estatutuek, beren zortzigarren xedapen iragankorrean arauen aurreraeragina ezartzen dute, eta berariaz xedatzen dute Estatutu horiek garatzeko arauak onetsi bitartean aplikagarriak izango direla LRUren esparruan onetsitakoak, Unibertsitateei buruzko Lege Organikoari eta Estatutu hauei kontra egiten ez dieten gaietan, eta Gobernu Kontseiluak kontrakoa arautzen ez badu.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, bere Estatutuek xedatzen dutenez, LOUn ezarritako Gradu, Master eta Doktoretza ikasketen maila eta egitura berriak ematen ditu.

Estatutuen Zortzigarren xedapen iragankorraren eta eta 103.2 artikuluaren arabera, hainbat arau aplikatu dira ikasketa maila berrietako ordezkari eta ordezkariordeen hautaketan. Zehazki, Graduko titulazio jakin batzuetarako Gobernu Kontseiluaren 2011ko azaroaren 16ko Erabakiaren bidez onetsitako hautaketa-arautegia aplikatu da, eta gainerako Gradu titulazioetarako eta Master titulazio guztietarako Gobernu Batzordearen 2000ko urriaren 3ko Arautegia aplikatu da. Arautegi horrek Lehen eta Bigarren Zikloetako ordezkari eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeak arautzen ditu, eta bere aplikazioa ikasketa maila berri hauetara egokitu da.

Azkenik, Doktoretzako ordezkari eta ordezkariordeeen hautaketarako, Hirugarren Zikloko ikasleen ordezkariak hautatzeko ezarritako hautaketa prozedura aplikatu da, eta bere aplikazioa maila berri honetara egokitu da. Hautaketa prozedura hori Gobernu Kontseiluaren 2004ko abenduaren 2ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onetsi zen.

Ante estas regulaciones distintas, con el fin de unificar el procedimiento de elección de los Delegados y Subdelegados en las distintos Niveles de enseñanzas oficiales que se imparten en la Universidad Pública de Navarra, desde el Vicerrectorado de Estudiantes y Empleo, oído el Consejo de Estudiantes, se ha propuesto un Reglamento regulador de las Elecciones a Delegados y Subdelegados de Grupo de los distintos Niveles de Enseñanzas que se imparten en esta Universidad, incorporando la posibilidad de elección a través de medios electrónicos.

Por lo expuesto, en desarrollo de lo dispuesto en el artículo 103.2 de los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra, el Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el día 14 de octubre de 2014, previa deliberación de sus miembros, adopta el siguiente

ACUERDO

Primero.- Aprobar el Reglamento para la elección de Delegados y Subdelegados en las enseñanzas de Grado, Máster y Doctorado que se imparten en la Universidad Pública de Navarra

Segundo.- El presente Reglamento entrará en vigor al día siguiente de su aprobación por el Consejo de Gobierno

Arauketa desberdin horien aurrean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ematen diren ikasketa ofizialen mailetan ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko prozedura bateratzeko helburuarekin, Ikasleen Gaietarako eta Enpleguko Errektoreordetzak, Ikasleei Kontseiluari entzun eta gero, Unibertsitate honetan ematen diren ikasketa mailetako ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeak arautzen dituen Arautegi bat proposatu da, eta hautaketa baliabide elektronikoen bidez egiteko aukera gehitu da.

Azaldutakoagatik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuetako 103.2 artikuluan xedatutakoa garatzeko, honako hau da Gobernu Kontseiluak bere kideek aldez aurretik eztabaida egin eta gero, 2014ko urriaren 14an egindako bileran hartu duen

ERABAKIA

Lehenengoa.- Nafarroako Unibertsitate Publikoan ematen diren Gradu, Master eta Doktoretza ikasketetan ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko arautegia onestea.

Bigarrena.- Gobernu Kontseiluak onetsi, eta biharamunean hartuko du indarra Arautegi honek.

**REGLAMENTO REGULADOR DE LAS ELECCIONES DE DELEGADOS Y SUBDELEGADOS DE GRUPO DE LAS ENSEÑANZAS DE GRADO, MASTER Y DOCTORADO DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

## CAPÍTULO I: DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1: Ámbito de Aplicación

El presente Reglamento tiene por objeto regular los procesos para la elección de los Delegados y Subdelegados de Grupo, de entre los estudiantes de la Universidad Pública de Navarra de las enseñanzas, con validez en todo el territorio nacional, conducentes a la obtención de los títulos oficiales de Grado, Máster y Doctorado.

Los Delegados y Subdelegados tendrán las funciones y representación que les atribuyen los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra, el Reglamento del Consejo de Estudiantes, el presente Reglamento y cualquier otra disposición que resulte de aplicación.

### Artículo 2: Circunscripción Electoral. Grupo

2.1. La circunscripción electoral para la elección de Delegado y Subdelegados será el Grupo.

El Grupo se define en función de las distintas titulaciones oficiales que se imparten en la Universidad Pública de Navarra: Grado, Máster y Doctorado. Asimismo, en el primer curso de determinadas titulaciones de Grado, el concepto de Grupo se define en función de la transversalidad de las asignaturas.

2.2. El concepto de Grupo en las distintas titulaciones es el siguiente:

<u>a) Primer Curso de determinadas titulaciones de Grado con asignaturas Transversales</u>

La oferta académica aprobada en cada curso, determinará las titulaciones con asignaturas transversales.

En cada ámbito o rama de conocimiento, constituyen el Grupo los alumnos de la asignatura transversal en la que esté matriculado mayor número de estudiantes, salvo que se hayan ofertado asignaturas que agrupen a los estudiantes por titulación. En este supuesto serán el Grupo de referencia.

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN GRADU, MASTER ETA DOKTORETZA IKASKETETAN TALDEKO ORDEZKARI ETA ORDEZKARIORDEEN HAUTESKUNDEAK ARAUTZEN DITUEN ARAUTEGIA**

## I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua: Aplikazio eremua

Arautegi honen xedea da Gradu, Master eta Doktoretzako titulu ofizialak lortzera bideratuta dauden eta lurralde nazional osoan balioa duten ikasketak egiten ari diren Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleen artean taldeko ordezkari eta ordezkariordeak hautatzeko prozesuak arautzea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuek, Ikasleen Kontseiluaren Arautegiak, Arautegi honek eta aplikagarria den beste edozein xedapenek esleitzen dizkien eginkizunak eta ordezkaritza izango dituzte ordezkari eta ordezkariordeek.

### 2. artikulua: Hauteskunde Barrutia. Taldea

2.1. Taldea izango da ordezkaria eta ordezkariordea hautatzeko hauteskunde-barrutia.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan ematen diren titulazio ofizialen arabera definitzen da taldea: Gradua, Masterra eta Doktoretza. Halaber, Gradu titulazio jakin batzuetako lehen ikasmailetan, talde kontzeptua irakasgaien zeharkakotasunaren arabera definitzen da.

2.2. Honako hau da titulazioetako talde kontzeptua:

<u>a) Zeharkako irakasgaiak dituzten Gradu titulazio batzuetako lehen ikasmailak.</u>

Ikasmaila bakoitzean onetsitako irakaskuntza eskaintzak zehaztuko ditu zeharkako irakasgaiak dituzten titulazioak.

Jakintza-arlo edo adar bakoitzean, matrikulatuta ikasle gehien dauzkan zeharkako irakasgaiko ikasleek osatuko dute taldea, ez bada ikasleak taldeka biltzen dituzten irakasgaiak eskaini direla. Kasu horretan erreferentzia taldea izango da.

b) Titulaciones de Grado y Máster :

Los estudiantes de las titulaciones de Grado, y los de Máster, pertenecerán al curso en el que estén matriculados en el mayor número de ECTS.

La oferta académica aprobada en cada curso determinará los Grupos existentes.

c) Doctorado:

En los Grupos de Doctorado se entiende por Grupo el compuesto por los estudiantes de doctorado cuyos Directores de Tesis pertenezcan al mismo Departamento.

Cuando los Directores de Tesis no sean PDI de la Universidad Pública de Navarra, se tendrá en cuenta el Departamento al que pertenezca el Tutor de la Tesis.

**Artículo 3: Número de Delegados y Subdelegados a elegir**

3.1. Cada Grupo elegirá de entre sus estudiantes un Delegado y, como máximo, dos Subdelegados. En cualquier caso, todos los Grupos, excepto en los Grupos de Doctorado, deberán elegir un Subdelegado.

En los Grupos en que se elijan dos Subdelegados, el Delegado designará al Subdelegado que le sustituirá en caso de ausencia. En los supuestos en que no lo designe, le sustituirá el Subdelegado que haya obtenido mayor número de votos, y en caso de empate, el de mayor edad.

3.2. Los estudiantes de cada Grupo que consten en el censo respectivo serán electores y elegibles.

En las elecciones a Delegados de Doctorado, no podrán ser electores los estudiantes que hayan participado en las elecciones del sector del PDI adscrito en el Departamento respectivo ni elegibles los que se recogen en el artículo 8 del presente reglamento.

3.3. El derecho a voto se ejercerá personalmente. El voto será directo, personal, igual, libre y secreto.

Cada estudiante emitirá un solo voto. No procederá el voto por correo ni el voto anticipado.

**Artículo 4: Candidaturas y Proclamación Electos**

4.1. En los Grupos en los que se presenten tres o más candidatos a Delegado, resultará elegido Delegado el candidato más votado. Los dos siguientes con mayor número de votos serán Subdelegados.

b) Gradu eta Master titulazioak:

Gradu eta Master titulazioetako ikasleak ECTS gehien matrikulatuta dauzkaten ikasmailakoak izango dira.

Ikasmaila bakoitzean onetsitako irakaskuntza eskaintzak zehaztuko ditu dauden taldeak.

c) Doktoretza:

Doktoretza Taldeetan, sail bereko tesi-zuzendariak dauzkaten doktoretza ikasleek osatuko dute taldea.

Tesi zuzendariak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle-ikertzaileak ez badira, tesi-tutorea zein sailetakoa den hartuko da kontuan.

**3. artikulua: Zenbat ordezkari eta ordezkariorde hautatuko diren**

3.1. Talde bakoitzak ordezkari bat, eta gehienez ere bi ordezkariorde hautatuko ditu bere ikasleen artean. Nolanahi ere, talde guztiek, Doktoretza taldeen salbuespenarekin, ordezkariorde bat aukeratu beharko dute.

Bi ordezkariorde hautatzen dituzten taldeetan, ordezkariak izendatuko du ordezkariordea, eta bera arituko da haren ordez. Ordezkariordea izendatzen ez badu, boto gehien lortu dituen ordezkariordeak ordezkatuko du, eta berdinketa badago, adin handiena duenak.

3.2. Dagokion erroldan dauden talde bakoitzeko ikasleak hautesle eta hautagai izango dira.

Doktoretza ordezkariak hautatzeko hauteskundeetan, ezin izango dute hautesle izan dagokion sailera atxikitako Irakasle-Ikertzaileen arloko hauteskundeetan parte hartu duten ikasleek, eta arautegi honetako 8. artikuluko ikasleek ere ezin izango dute hautagai izan.

3.3. Boto eskubidea pertsonalki erabiliko da. Botoa zuzena, pertsonala, berdina, askea eta isilpekoa izango da.

Ikasle bakoitzak boto bakar bat emango du. Postaren bidezko botoa eta boto aurreratua ez dira zilegi.

**4. artikulua: Hautagaitzak eta hautetsien aldarrikapena**

4.1. Ordezkari izateko hiru hautagai edo hautagai gehiago dituzten taldeetan boto gehien lortu dituen ordezkaria hautatuko dute ordezkari. Boto gehien lortu dituzten hurrengo bi hautagaiak ordezkariordeak izango dira.

4.2. En los Grupos en los que se presenten dos candidatos a Delegado, resultará elegido Delegado el candidato más votado y el otro candidato será Subdelegado.

4.2. Ordezkari izateko bi hautagai dituzten taldeetan boto gehien lortu dituen ordezkaria hautatuko dute ordezkari eta beste hautagaia ordezkariordea izango da.

4.3. En los Grupos de las titulaciones de Grado y Máster, cuando se presente un solo candidato, será proclamado automáticamente Delegado sin necesidad de votación. Para cubrir el puesto de Subdelegado en los Grupos de las titulaciones de Grado o Máster, se efectuará una votación en la que serán electores y elegibles todos los estudiantes del Grupo, salvo el proclamado como Delegado, que sólo tendrá la condición de elector.

4.3. Gradu eta Master titulazioetako taldeetan, hautagai bakar bat aurkezten bada, bozketa egin gabe automatikoki aldarrikatuko dute ordezkari. Gradu eta Master titulazioetako taldeetan ordezkariorde postua betetzeko, bozketa bat egingo da, eta bozketa horretan hautesle eta hautagai izango dira taldeko ikasle guztiak, ordezkari aldarrikatu duten ikaslea salbu, hura hautesle izango baita bakarrik.

4.4. En los Grupos de Doctorado, cuando se presente un sólo candidato, resultará automáticamente elegido cómo Delegado, sin necesidad de proceder a votación, no contando en este supuesto en este Grupo con Subdelegado.

4.4. Doktoretza taldeetan, hautagai bakar bat aurkezten bada, ordezkari hautatuko dute automatikoki, bozketarik egin gabe, eta kasu honetan ez dute ordezkariorderik izango talde horretan.

4.5. En caso de que no haya candidatos, serán electores y elegibles todos los estudiantes del Grupo. Será elegido Delegado el candidato más votado, y el siguiente con mayor número de votos será proclamado Subdelegado.

4.5. Hautagairik ez badago, taldeko ikasle guztiak izango dira hautesle eta hautagai. Botorik gehien jaso duen hautagaia aldarrikatuko dute ordezkari, eta boto gehien lortu dituen hurrengo hautagaia ordezkariorde.

4.6. El empate en las votaciones, se dirimirá atendiendo al criterio de mayor edad.

4.6. Bozketetan berdinketa badago, adin handienaren irizpideari jarraituko zaio.

**Artículo 5: Mandato y Sustitución**

**5. artikulua: Agintaldia eta ordezkatzea**

5.1. El mandato de los Delegados y Subdelegados de todas las titulaciones de Grado y de las de Máster comprenderá el año académico completo en el que fueron elegidos.

5.1. Gradu eta Master titulazioetako ordezkari eta ordezkariordeen agintaldiak hautatuak izan ziren ikasturtea iraungo du.

El mandato de los Delegados de Doctorado tendrá una duración de dos años académicos, comprendiendo el año académico en el que fueron elegidos y el siguiente.

Doktoretzako ordezkarien agintaldiak bi ikasturteko iraupena izango du, hautatuak izan ziren ikasturtetik hasi eta hurrengo ikasturtera arte, biak barne.

5.2. Si durante el período de mandato el Delegado perdiera la condición de estudiante de la Universidad Pública de Navarra, será designado Delegado el Subdelegado del Grupo.

5.2. Agintaldian Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikaslea izateari uzten badio ordezkariak, taldearen ordezkariordea izendatuko dute ordezkari.

En caso de que haya dos Subdelegados, será designado Delegado el Subdelegado que hubiese obtenido mayor número de votos, y en caso de empate, el de mayor edad.

Bi ordezkariorde badaude, boto gehien lortu dituen ordezkariordea izendatuko dute ordezkari, eta berdinketa badago, adin handiena duena.

5.3. En los supuestos en los que tanto el Delegado como el o los Subdelegados hayan perdido la condición de estudiantes antes de la finalización del mandato, el Delegado será sustituido por el siguiente candidato más votado en las elecciones en las que fue elegido, y que mantenga la condición de estudiante del Grupo respectivo de la Universidad Pública de Navarra.

5.3. Bai ordezkariak bai ordezkariordeek ikasle izateari uzten badiote agintaldia amaitu baino lehen, hurrengo ordezkaria izango da hautatua izan zen hauteskundeetan boto gehien lortu zituen hurrengo hautagaia, betiere Nafarroako Unibertsitate Publikoko dagokion taldeko ikaslea izaten jarraitzen badu.

5.4. Si no hubiere Subdelegados ni candidatos del mismo Grupo para las sustituciones mencionadas en los apartados anteriores, asumirán las funciones y representación los siguientes estudiantes:

5.4. Ez balego ordezkariorderik ezta talde bereko hautagairik aurreko idatz-zatietan aipatutako ordezkapenak egiteko, ikasle hauek hartuko dituzte beren gain eginkizunak eta ordezkaritza:

a) En los Grupos de primer curso de determinadas titulaciones de Grado con asignaturas transversales, los Delegados de primer curso de los demás Grupos de la asignatura transversal de las titulaciones del mismo ámbito o rama de conocimiento.

b) En los Grupos de las demás titulaciones de Grado y en las de Máster, siempre que queden más de cuatro meses para la finalización del segundo semestre del respectivo curso, se deberán convocar elecciones a Delegado.

   Si quedan menos de cuatro meses, no procederá convocar elecciones, y asumirán las funciones y representación los Delegados de Grupo del mismo curso de la misma titulación, y, caso de que no los haya, los Delegados de Grupo del curso inmediatamente superior.

c) En los Grupos de Doctorado, siempre que queden más de seis meses para la finalización del mandato como representantes de estudiantes en el respectivo Consejo, se deberán convocar elecciones a Delegado.

a) Zeharkako irakasgaiak dituzten Gradu titulazio jakin batzuetako lehen ikasmailako taldeetan, jakintza arlo edo adar bereko titulazioetako zeharkako irakasgaiko gainerako taldeetako lehen ikasmailako ordezkariak.

b) Gainerako Gradu titulazioetako eta Master titulazioetako taldeetan, betiere dagokion ikasturteko bigarren seihilekoa amaitzeko lau hilabete baino gehiago geratzen badira, ordezkaria hautatzeko hauteskundeetarako deialdia egin beharko da.

   Lau hilabete baino gutxiago geratzen badira, ez da zilegi hauteskundeetarako deialdia egitea, eta titulazio bereko ikasmaila bereko taldeko ordezkariek hartuko dituzte bere gain eginkizunak eta ordezkaritza, eta taldeko ordezkaririk ez balego, hurrengo ikasmailako taldeko ordezkariek.

c) Doktoretza taldeetan, betiere dagokion Kontseiluan ikasleen ordezkari gisa daukaten agintaldia amaitzeko sei hilabete baino gehiago geratzen badira, ordezkaria hautatzeko hauteskundeetarako deialdia egin beharko da.

5.5. El mandato de los sustitutos de los Delegados de Grado y Máster durará hasta la finalización del curso académico respectivo.

El mandato de los sustitutos de los Delegados de Doctorado, durará hasta la finalización de los dos cursos académicos de mandato del sustituido.

5.5. Gradu eta Masterreko ordezkarien ordezkoen agintaldiak dagokion ikasturtea amaitu arteko iraupena izango du.

Doktoretzako ordezkarien hurrengoen agintaldiak ordezkatuaren agintaldiaren bi ikasturteak amaitu arteko iraupena izango du.

**Artículo 6. Convocatoria de Elecciones.**

6.1. Cada curso académico, el Vicerrector competente en materia de estudiantes, teniendo en cuenta los plazos de matrícula de cada curso académico, determinará el plazo máximo en el que se deben convocar las elecciones a Delegados y Subdelegados de Grupo.

6.2. Las elecciones a Delegados y Subdelegados de las titulaciones de Grado y de Máster serán convocadas cada curso académico por los Directores del Centro respectivo. El Director de Centro designará para la elección correspondiente de cada Grupo, de entre los profesores que imparten asignaturas obligatorias, al profesor responsable del desarrollo y seguimiento de este proceso electoral.

Las elecciones a Delegados y Subdelegados de Doctorado, serán convocadas cada dos cursos académicos a través de la Escuela de Doctorado de

**6. artikulua. Hauteskundeetarako deialdia.**

6.1. Ikasturte bakoitzean, ikasleen gaietan eskumena duen errektoreordeak, ikasturte bakoitzeko matrikula epeak kontuan hartuta, taldeko ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeetarako deialdia gehienez ere zein epetan egingo den zehaztuko du.

6.2. Ikastegi bakoitzeko zuzendariak egingo du ikasturte bakoitzean Gradu eta Master titulazioetako ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeetarako deialdia. Ikastegiko zuzendariak talde bakoitzeko dagokion hauteskundeetarako irakasle bat izendatuko du, nahitaezko irakasgaiak irakasten dituzten irakasleen artean, hauteskunde prozesuaren garapena eta jarraipena egitearen ardura izango duen irakaslea.

Doktoretzako ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeetarako deialdia bi ikasturtetik behin egingo dute Unibertsitateko

la Universidad, por los Directores del Departamento respectivo. El Director del Departamento designará, de entre los profesores de su Departamento, al profesor responsable del desarrollo y seguimiento de este proceso electoral.

Doktoretza Eskolaren bidez dagokion saileko zuzendariek. Saileko zuzendariak bere saileko irakasleen artean izendatuko du hauteskunde prozesua prozesu horren garapena eta jarraipena egitearen ardura izango duen irakaslea.

6.3. El órgano convocante aprobará las fechas, plazos y lugares del desarrollo del proceso electoral, ajustándose a estos efectos al procedimiento de votación, presencial o electrónico, que determine el profesor responsable del desarrollo y seguimiento del proceso electoral.

6.3. Hauteskunde prozesua garatzeko egunak, epeak eta tokiak deialdia egiten duen organoak onetsiko ditu, eta horretarako hauteskunde-prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko ardura duen irakasleak zehaztutako bozketa prozedurari (presentziala edo elektronikoa bada ere) egokituko zaio.

6.4. La convocatoria de elecciones deberá contener los siguientes extremos:

1.- Plazos, lugar y medio de publicación del censo electoral y plazos para reclamar contra los mismos.
2.- Procedimiento de votación, que podrá ser presencial o electrónico.
3.- Profesor responsable del desarrollo y seguimiento del respectivo proceso electoral.
4.- Fecha, lugar y plazo de presentación de candidaturas.
5.- Fecha, horario y lugar o medio de votación.
6.- Fecha de proclamación definitiva

6.4. Hauteskundeetarako deialdiak honako eduki hauek zehaztuko ditu:

1.- Hauteskunde errolda argitaratzeko epeak, tokia eta bitartekoak eta horien aurka erreklamazioak aurkezteko epeak.
2.- Bozketa prozedura; presentziala edo elektronikoa izango da.
3.- Dagokion hauteskunde prozesuaaren garapena eta jarraipena egiteko ardura izango duen irakaslea.
4.- Hautagaitzak aurkezteko eguna, epea eta tokia.
5.- Bozketa egiteko eguna, ordua eta tokia edo bozketa egiteko bitartekoa.
6.- Behin betiko aldarrikapenaren eguna.

6.5. La convocatoria de elecciones se comunicará a los estudiantes y se publicará en la página web del Centro o Departamento respectivo para su consulta.

6.5. Hauteskundeetarako deialdia ikasleei jakinaraziko zaie, eta dagokion ikastegiko edo saileko web-orrialdean argitaratuko da kontsultatzeko.

**Artículo 7. Censos electorales. Elaboración, publicación y reclamaciones**

**7. artikulua. Hauteskunde erroldak. Prestakuntza, argitalpena eta erreklamazioak**

7.1. En los censos únicamente constarán los dos apellidos y nombre de los estudiantes electores del Grupo respectivo.

7.1. Dagokion taldeko ikasle hautesleen bi abizen eta izena bakarrik agertuko dira erroldetan.

7.2. En las elecciones de Delegados y Subdelegados de Doctorado, los censos se facilitarán por la Escuela de Doctorado de la Universidad a los Directores de Departamento.

En las elecciones de Delegados y Subdelegados de Grado y Máster, los censos se corresponderán con la lista de clase de la asignatura del profesor que sea responsable del desarrollo y seguimiento del proceso electoral y que estará disponible en la plataforma de Mi Aulario.

7.2. Doktoretzako ordezkari eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeetan, Unibertsitateko Doktoretza Eskolak emango dizkie erroldak sail bakoitzeko zuzendariei.

Gradu eta Masterreko ordezkari eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeetan erroldak bat etorriko dira hauteskunde prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko ardura duen irakaslearen irakasgaiko ikasle zerrendarekin. Zerrenda hori erabilgarri egongo da NireIkasgelategia plataforman.

7.3. Los electores que no figuren en el censo o que lo hagan de forma inexacta, podrán reclamar ante el órgano convocante, dentro de los tres días siguientes a la publicación del mismo para que los errores u omisiones sean subsanados.

7.3. Erroldan ez dauden hautesleak edo behar bezala ez daudenak, deialdia egin duen organoari erreklamazioa aurkezteko aukera izango dute, errolda argitara eman eta hurrengo hiru eguneko epean, akatsak eta ez-egiteak zuzen ditzaten.

7.4. Las reclamaciones se resolverán por el órgano competente el día siguiente al de la finalización del plazo de presentación de reclamaciones.

Las reclamaciones no resueltas expresamente en dicho plazo se considerarán desestimadas.

**Artículo 8. Presentación de Candidaturas.**

8.1. Los estudiantes que lo deseen y que consten en el censo del Grupo, podrán presentar su candidatura al profesor que sea responsable del desarrollo y seguimiento del proceso electoral.

En las elecciones a Delegados de Doctorado no podrán ser candidatos los estudiantes que sean representantes por el sector del PDI adscrito en el Departamento respectivo.

8.2. El plazo de presentación de candidaturas, atendiendo al procedimiento de votación, será el siguiente:

- En el procedimiento de votación presencial: Desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria de elecciones, hasta media hora antes de la hora y el día previsto para la celebración de la votación.
- En el procedimiento de votación virtual: Desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria de elecciones, hasta las 24.00 horas del día anterior al previsto para la celebración de la votación.

8.3. La presentación de candidaturas deberá dirigirse al profesor responsable del desarrollo y seguimiento del respectivo proceso electoral, indicando, como mínimo, los datos siguientes:

Nombre y Apellidos, nº de DNI, la titulación de Grado, Máster o Doctorado que se está cursando, indicando Grupo al que pertenece, y manifestación de su voluntad de concurrir como candidato a Delegado y Subdelegado de dicho Grupo.

**CAPÍTULO II: PROCEDIMIENTOS DE VOTACIÓN**

**Artículo 9.** La votación podrá ser presencial o por medios electrónicos.

**<u>Sección I: Votación presencial</u>**

**Artículo 10. Constitución Mesas Electorales y Votación**

7.4. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunean ebatziko ditu erreklamazioak organo eskumendunak.

Epe horretan espreski ebazten ez diren erreklamazioak ezetsitzat emango dira.

**8. artikulua. Hautagaitzen aurkezpena.**

8.1. Hala nahi duten ikasleek hauteskunde prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko ardura duen irakasleari beren hautagaitza aurkeztuko diote, betiere taldearen erroldan agertzen badira.

Doktoretzako ordezkariak hautatzeko hauteskundeetan ezin izango dute hautagai gisa aurkeztu dagokion sailera atxikitako Irakasle-Ikertzaileen arloko ordezkariak diren ikasleek.

8.2. Hautagaitzak aurkezteko epea, bozketa prozedurari jarraiki, hau izango da:

- Bozketa presentzialeko prozeduran: Hauteskundeetarako deialdia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, bozketa egiteko ordua hasi baino ordu erdi lehenagora arte.
- Bozketa birtualeko prozeduran: Hauteskundeetarako deialdia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, bozketa egiteko egunaren bezperako 24:00etara arte.

8.3. Hautagaitzen aurkezpena dagokion hauteskunde prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko ardura duen irakasleari zuzendu beharko zaio, eta datu hauek jarriko dira gutxienez ere:

Izena eta deiturak, NAN zk., egiten ari den Gradu, Master edo Doktoretzako titulazioa, zein taldetakoa den, eta talde horretako ordezkaria eta ordezkariordea izateko hautagai gisa aurkezteko borondatearen agerpena.

**II. KAPITULUA: BOZKETA PROZEDURA**

**9. artikulua.** Bozketa presentziala edo bitarteko elektronikoen bidezkoa izango da.

**<u>I. Atala: Bozketa presentziala</u>**

**10. artikulua. Hauteskunde Mahaien eraketa eta Bozketa**

10.1. La votación presencial en las elecciones a Delegados y Subdelegados de Grado y Máster tendrá lugar, en todo caso, en una de las clases de las asignatura obligatoria del Grupo que imparta el profesor que sea responsable del desarrollo y seguimiento del respectivo proceso.
En las elecciones a Delegados y Subdelegados de Doctorado, la votación tendrá lugar en el Departamento respectivo, en el lugar que determine el órgano convocante. La duración de la votación no podrá ser inferior a dos horas.

10.2. En las elecciones a Delegados y Subdelegados de Grado y Máster, el día y hora de clase establecido para la votación, el profesor que sea responsable del desarrollo y seguimiento del respectivo proceso constituirá la Mesa Electoral. Constituida la Mesa, y antes del inicio de la votación, se procederá por este profesor a la presentación pública de los candidatos presentados que consten en el censo del Grupo, quiénes defenderá su programa de actuación.

En las elecciones a Delegados y Subdelegados de Doctorado, quince minutos antes de la hora establecida para el inicio de la votación, y en el lugar establecido para la votación, el profesor que haya sido designado responsable del desarrollo y seguimiento del respectivo proceso electoral constituirá la Mesa Electoral. Constituida la Mesa, y antes del inicio de la votación, se procederá por este profesor a la exposición, en lugar visible y próximo al que esté ubicada la Mesa, de la relación de candidatos presentados.

Constituida la Mesa Electoral, a continuación se realizarán las votaciones.

10.3. La Mesa Electoral estará formada por el profesor que haya sido designado responsable del desarrollo y seguimiento del respectivo proceso electoral, que será el Presidente de la Mesa, y por dos Vocales.

En las elecciones a Delegados y Subdelegados de Grado y Máster, estos dos Vocales serán el primer y último estudiante del censo electoral del Grupo de entre los presentes en el aula el día de la votación, que no sean candidatos.

En las elecciones a Delegados y Subdelegados de Doctorado, estos dos Vocales serán el primer y último estudiante del censo electoral del Grupo que no sean candidatos. Estos estudiantes designados cómo Vocales serán convocados a efectos de la constitución de la Mesa Electoral por el profesor que haya sido designado responsable del desarrollo y seguimiento del respectivo proceso electoral.

Si todos los estudiantes fuesen candidatos, esta circunstancia no será eximente para ser Vocal.

10.1. Gradu eta Masterreko ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeetan bozketa presentziala egingo da dagokion prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko ardura duen irakasleak irakasten duen taldeko nahitaezko irakasgaiaren eskoletako batean.
Doktoretzako ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeetan, bozketa egingo da dagokion Sailean, deialdia egin duen organoak zehaztutako tokian. Bozketaren iraupena bi ordukoa izango da gutxienez ere.

10.2. Gradu eta Masterreko ordezkari eta ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeetan, bozketa egiteko ezarritako eskolari dagozkion egun-orduetan, Hauteskunde Mahaia eratuko du prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko ardura duen irakasleak. Mahaia eratzen denean, eta bozketa egin baino lehen, irakasle horrek taldearen erroldan agertzen diren aurkeztutako hautagaien aurkezpen publikoa egingo du, eta hautagai horiek beren jarduera programa defendatuko dute.

Doktoretzako ordezkari eta ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeetan, bozketa hasteko ezarritako ordua baino hamabost minutu lehenago, eta bozketa egiteko ezarritako tokian, Hauteskunde Mahaiko eratuko du hauteskunde prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko izendatu duten irakasleak. Mahaia eratzen denean, eta bozketa hasi baino lehen, irakasle horrek, ikusteko moduan eta Mahairen kokalekutik hurbil dagoen toki batean, aurkeztutako hautagaien zerrenda azalduko du.

Hauteskunde Mahaia eratu eta gero, bozketak egingo dituzte.

10.3. Dagokion hauteskunde prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko arduradun izendatu duten irakasleak, mahaiburua izango denak, eta bi mahaikidek osatuko dute Hauteskunde Mahaia.

Gradu eta Masterreko ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeetan, bi mahaikide horiek izango dira taldeko hauteskunde erroldako lehen eta azken ikaslea bozketaren egunean ikasgelan daudenen artean, betiere hautagaiak ez badira.

Doktoretzako ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko hauteskundeetan, bi mahaikide horiek izango dira taldeko hauteskunde erroldako lehen eta azken ikaslea, betiere hautagaiak ez badira. Mahaikide izendatutako ikasle horiek Hauteskunde Mahaiaren eraketan parte hartzeko dei egingo die dagokion hauteskunde prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko arduradun izendatu duten irakasleak.

Ikasle guztiak hautagaiak badira, horrek ez die kenduko mahaikide izateko betebeharra.

El desempeño de los cargos de Presidente y Vocal será obligatorio.

10.4. La votación tendrá lugar previa comprobación por el Presidente de la Mesa de la identidad del votante y de su inclusión en el censo. El voto se emitirá mediante papeletas que aseguren el debido secreto de voto emitido.

Cada votante indicará en la papeleta únicamente el nombre de uno de los candidatos.

Finalizada la votación, se procederá por los miembros de la Mesa Electoral al escrutinio público de los votos en el aula o lugar en el que se haya realizado la votación

**Artículo 11: Escrutinio**

Se considerarán nulas las papeletas que contengan el nombre de más de un candidato, las que no consistan estrictamente en la expresión del nombre de un candidato, y las ilegibles que no permitan la identificación exacta del candidato votado.

Realizado el recuento de votos por la Mesa Electoral, levantará acta de los resultados, que será firmada por los tres miembros de la Mesa. Respecto de cada candidato se indicará en el acta su nombre y dos apellidos, nº de DNI, y la titulación de Grado, Máster o Doctorado que esté cursando, y el número de votos obtenidos.

Serán proclamados Delegados y Subdelegados los candidatos en función del mayor número de votos obtenidos, y, en caso de empate, el de mayor edad.

**Artículo 12: Resultados: Publicación**

El Presidente de la Mesa Electoral dará traslado de las actas de escrutinio al Director de Centro o Departamento convocante. El Secretario del Centro o Departamento custodiará las actas. Los Directores publicarán los resultados en la página web del Centro o Departamento respectivo.

**<u>Sección II: Votación virtual</u>**

**Artículo 13. Procedimiento de votación y trámites**

13.1. La votación virtual tendrá lugar a través de mi aulario, por los medios electrónicos que facilite el Centro Superior de Innovación Educativa de la Universidad Pública de Navarra.

El Centro Superior de Innovación, garantizará en el proceso de votación virtual tanto el secreto de voto

Nahitaezkoa izango da, mahaiburu eta mahaikide karguetan aritzea.

10.4. Botoa eman baino lehen, boto-emailearen nortasuna egiaztatuko du mahaiburuak, baita erroldan agertzen dela ere. Botoa txarteletan emango da, emandako botoari zor zaion sekretua bermatzeko.

Boto-emaile bakoitzak hautagaietako baten izena soilik idatziko du txartelean.

Bozketa amaitu eta gero, Hauteskunde Mahaiaren kide guztiek boto zenbaketa publikoa egingo dute bozketa egiteko erabili den ikasgelan edo tokian.

**11. artikulua: Boto zenbaketa**

Baliogabetzat emango dira hautagai bat baino gehiagoren izena idatzita dauzkaten txartelak, izenaz gainera beste zerbait idatzita daukatenak, eta irakurtezinak direnak edo hautagaia zehatz mehatz zein den jakiteko modua ematen ez dutenak.

Hauteskunde Mahaikak boto zenbaketa egin ondoren, emaitzen akta egingo du eta hiru mahaikideek sinatuko dute. Hautagai bakoitzari dagokionez, aktan idatziko dira bere izena eta bi abizen, NAN zk., eta egiten ari den Gradu, Master eta Doktoretza titulazioa, eta lortu dituen boto kopurua.

Ordezkari eta ordezkariorde aldarrikatuko dituzte boto gehien jasotzen dituzten hautagaiak, eta berdinketa badago, adin handiena duena.

**12. artikulua: Emaitzak: Argitalpena**

Hauteskunde Mahaiaren buruak boto zenbaketaren aktak bidaliko dizkio deialdia egin duen ikastegi edo sailaren zuzendariari. Ikastegi edo sail horretako idazkariak gordeko ditu aktak. Zuzendariek dagokion ikastegi edo sailaren web-orrialdean argitaratuko dituzte emaitzak.

**<u>II. ATALA: Bozketa birtuala</u>**

**13. artikulua. Bozketa prozedura eta tramiteak**

13.1. Bozketa birtuala NireIkasgelategiaren bidez egingo da, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hezkuntza Berrikuntzaren Goi Mailako Ikastegiak ematen dituen baliabide elektronikoen bidez.

Talde bakoitzeko ikasle hautesleek isilpeko botoa eta boto bakar bat emango dutela bermatuko du

cómo que se emita un único voto por los estudiantes electores de cada Grupo.

bozketa birtualeko prozesuan Berrikuntzako Goi Mailako Ikastegiak.

13.2. El día de la votación, y antes del inicio de la misma, se podrá ver en el sitio de Mi Aulario de la asignatura del profesor responsable del desarrollo y seguimiento del proceso, la relación de candidatos presentados.

13.2. Bozketaren egunean, eta bozketa hasi baino lehen, prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko ardura duen irakaslearen irakasgaiak Nire Ikasgelategian duen gunean ikusgai egongo da aurkeztutako hautagaien zerrenda.

13.3. El procedimiento de votación será el determinado en el manual que el CSIE facilitará a los órganos convocantes para que se los hagan llegar a los profesores responsables del proceso.

13.3. Bozketa prozedura HBGMIk deialdia egiten duten organoei prozesuaren arduradunak diren irakasleei helarazteko emango dien eskuliburuan ezarritakoa izango da.

13.4. Finalizada la votación, el profesor responsable del desarrollo y seguimiento del respectivo proceso electoral publicará en la misma página web a través de la que se haya realizado la votación, los resultados de la misma, indicando el número de votos válidos obtenidos por cada candidato y, a la vista de estos resultados, determinará que estudiantes son proclamados como Delegado y, en su caso, Subdelegados.

13.4. Bozketa amaitu eta gero, dagokion hauteskunde-prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko ardura duen irakasleak bozketa egiteko erabili den webgune beraren bidez argitaratuko ditu bozketaren emaitzak, eta hautagai bakoitzak lortutako boto baliodunen kopurua jarriko du, eta emaitzen arabera zehaztuko du zein ikasle aldarrikatuko dituzten ordezkari, eta, hala badagokio, ordezkariorde.

Serán proclamados Delegados y Subdelegados los candidatos en función del mayor número de votos obtenidos y, en caso de empate, el de mayor edad.

Ordezkari eta ordezkariorde aldarrikatuko dituzte boto gehien jasotzen dituzten hautagaiak, eta berdinketa badago, adin handiena duena.

13.5. Sin perjuicio de las publicaciones en la página web, el profesor responsable levantará acta de escrutinio. En esta acta indicará respecto de cada candidato su nombre y dos apellidos, nº de DNI, y la titulación de Grado, Máster o Doctorado que esté cursando, y el número de votos obtenidos. Asimismo indicará en el acta, en función del mayor número de votos, que candidatos han sido proclamados Delegados y Subdelegados.

13.5. Web-orrialdeko argitalpenak galarazi gabe, irakasle arduradunak boto zenbaketaren akta idatziko du. Hautagai bakoitzari dagokionez, aktan idatziko ditu bere izena eta bi abizen, NAN zk., eta egiten ari den Gradu, Master eta Doktoretza titulazioa, eta lortu dituen boto kopurua. Halaber, aktan idatziko ditu, boto kopuru handienaren arabera, zein hautagai aldarrikatu dituzten ordezkari eta ordezkariorde.

**Artículo 14: Resultados: Publicación.**

El profesor responsable del desarrollo y seguimiento del respectivo proceso electoral dará traslado de las actas de escrutinio al Director de Centro o Departamento convocante. El Secretario del Centro o Departamento custodiará las actas.

**14. artikulua: Emaitzak: Argitalpena.**

Dagokion hauteskunde prozesuaren garapena eta jarraipena egiteko ardura duen irakasleak deialdia egin duen ikastegiko edo saileko zuzendariari bidaliko dizkio boto-zenbaketaren aktak. Ikastegi edo Sail horren idazkariak gordeko ditu aktak.

## CAPÍTULO III: RESULTADOS: RECLAMACIONES Y RECURSOS

## III. KAPITULUA: EMAITZAK: ERREKLAMAZIOAK ETA ERREKURTSOAK

**Artículo 15: Reclamaciones y recursos.**

15.1. Contra los resultados los estudiantes del Grupo podrán presentar ante el órgano competente reclamación en el plazo de dos días contados desde el día siguiente al de la publicación de los resultados.

15.2. Las reclamaciones se resolverán por el órgano competente al día siguiente de la

**15. artikulua: Erreklamazioak eta errekurtsoak.**

15.1. Taldeko ikasleek zilegi dute organo eskumendunaren aurrean erreklamazioa aurkeztea bi eguneko epean emaitzen aurka emaitzak argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

15.2. Erreklamazioak aurkezteko bi eguneko epe hori amaitzen den egunaren biharamunean

finalización del mencionado plazo de dos días para reclamar. Transcurrido dicho plazo sin que recaiga resolución expresa, las reclamaciones se entenderán desestimadas.

15.3. Contra la desestimación expresa o presunta de las reclamaciones por los Directores de Centro y de Departamento, podrá interponerse recurso de alzada ante el Rector de la Universidad Pública de Navarra en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de su resolución expresa, o desde el día siguiente al que se deba entender desestimada si no recae resolución expresa.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL**

**Cita en género femenino de los preceptos de esta normativa.**

Las referencias a personas, colectivos o cargos que figuran en la presente normativa será en género masculino como género gramatical no marcado. Cuando proceda, será válida la cita de los preceptos correspondientes en género femenino.

**DISPOSICIÓN DEROGATORIA**

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en el presente Reglamento, y, en particular:

- El Reglamento regulador de los Delegados de Grupo o Curso de la Universidad Pública de Navarra, aprobado por Acuerdo de la Junta de Gobierno 41/2000, de 3 de octubre de 2000).
- Las disposiciones en materia de elecciones de Delegados de Grupo representantes de estudiantes de Tercer Ciclo, aprobado por Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 2 de diciembre de 2004.
- El Reglamento regulador de las elecciones a Primer Curso de Grado de determinadas titulaciones, aprobado por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 16 de noviembre de 2011.

**DISPOSICIÓN FINAL.**

El presente Reglamento entrará en vigor el día siguiente de su aprobación por el Consejo de Gobierno, y se publicará en la página web de la Universidad Pública de Navarra.

ebatziko ditu erreklamazioak organo eskumendunak. Epe hori iraungi eta ebazpen espresurik ez bada, erreklamazioak ezetsitzat emango dira.

15.3. Ikastegiko eta Saileko zuzendariek erreklamazioak ezesteko onetsitako ebazpen espresuaren edo ustezkoaren aurka, zilegi da gorako errekurtsoa Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen aurrean hilabeteko epean, bere ebazpen espresua eman zuen egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo ebazpen espresurik ez badago ezetsitzat jo behar den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

**XEDAPEN GEHIGARRIA**

**Araudi honetako aginduak genero femeninoan aipatzea gaztelaniako testuan**

Araudi honetan, gaztelaniazko testuan, genero maskulinoan agertzen diren pertsonak, kolektiboak edo karguak, horrela agertzen dira markarik gabeko genero gramatikala delako. Hala dagokionean, genero femeninoa duten formak ere baliozkoak izango dira aginduen aipamenetan.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Arautegi honetan ezarritakoa urratzen duten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak indargabetu dira eta bereziki honako hauek:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko taldeko edo ikasmailako ordezkarien arautegi arautzailea, Gobernu Batzordearen erabaki baten bidez onetsia (41/2000, 2000ko urriaren 3koa).
- Hirugarren Zikloko ikasleen ordezkariak diren taldeko ordezkariak hautatzeko hauteskundeen arloko xedapenak, Gobernu Kontseiluaren 2004ko abenduaren 2ko erabaki baten bidez onetsitakoak.
- Titulazio jakin batzuetako Graduko lehen ikasmailarako hauteskundeen arautegi arautzailea, Gobernu Kontseiluaren 2011ko azaroaren 16ko erabaki baten bidez onetsitakoa.

**AZKEN XEDAPENA.**

Gobernu Kontseiluak onesten duen egunaren biharamunean hartuko du indarra Arautegi honek, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren web-orrialdean argitaratuko da.